

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko azaroa

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
 2. Lan merkatua
 3. Inflazioa
 4. Enpresarien konfiantza
 5. Inguruneko hazkundera
 6. NDFren aurreikuspenak
 7. Hilabeteko laburpena
- Eranskina

1. EAEko ekonomiak beherakada leundu zuen udako hilekoetan.

Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenak %7,7ko jaitsiera adierazi du urte arteko tasan.

2. Langabezia tasa %10,0ra jaitsi zen 2020ko hirugarren hiruhilekoan.

Tasa altuenak gazteen eta atzeritarren taldeetan hauteman dira.

3. Kontsumoko prezioek tasa negatibotan jarraitzen dute.

Pandemia hasi zenetik, KPlak urte arteko tasa negatiboak jaso ditu beti.

4. Enpresen konfiantzak gora egin zuen laugarren hiruhilekoari begira.

Hala eta guztiz ere, erantzunek une ekonomikoari buruz oso iritziz negatiboak dituztela adierazten dute.

5. Ekonomia nagusiak hasi dira pandemiaren kalteak gaitzen.

Hirugarren hiruhilekoko jaitsierak bigarrenekoak baino txikiagoak izan ziren.

6. Pandemia hedatzen ari da eta ekonomia susperraldia geroratzen.

NDFk gorantz berrikusi du 2020ko hazkunde aurreikuspena, baina 2021ekoa gutxitu du.

7. Hilabeteko laburpena.


Urriak zailtasunak piztu ditu laugarren hiruhilekoaz.

EAEko ekonomiak beherakada leundu zuen udako hilekoetan

BARNE PRODUKTU GORDINA
Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO BPGA
3. HIRUHILABETEA

-%7,7




Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko jarduera ekonomikoak beherazko joera moteldu zuen aurtengo hirugarren hiruhilekoan. 2020ko udako hilabeteetan COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko hartu ziren neurriek garrantzitsuak izaten jarraitu zuten arren, une honetan eskura dagoen koiunturako informazioak jarduera ekonomikoaren hobekuntza nabarmena erakusten du. Horixe islatzen du urte arteko tasen BPGaren

hazkundeak, %7,7ra jaitsi baitzen, urteko bigarren hiruhilekoan %20,0ra hurbildu ondoren. Erregistro horrek hobetu egin du Eusko Jaurlaritzak egindako zenbatespena (-%11,9), susperraldi motelagoa aurreikusten baitzuen. Hiruhileko arteko tasetan, susperraldia are dinamikoagoa izan zen. Zehazkiago adierazita, hiruhileko arteko jarduera ekonomikoa %15,2 handitu zen eta susperraldi horrek ez du aurrekaririk izan gutxienez 1995etik.

BARNE PRODUKTU GORDINA
Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO BPGA
3. HIRUHILABETEA
%15,2




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO ENPLEGUA

3. HIRUHILABETEA

-%6,5



Lan merkatuari dagokionez, enpleguaren jaitsiera, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, %6,5 izan zen. Datu hori ere ez dator bat Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenarekin. Izan ere, nahiz eta hobekuntza handia aurreikusi (bigarren hiruhilekoaren -%17,2tik hirugarreneko -%9,2ra), labur geratu da Eustatek aurreratutako erregistroarekin alderatuta. Hiruhileko batetik bestera, enplegu-

ak %13,3 egin du gora, hau da, ia 28 puntu egin du gora hiruhileko bakar batean.

Hasiera batean, aurreikuspenen arabera, EAEko ekonomiak hondoak izango ziren urteko bigarren hiruhilekoan, eta, ondoren, susperraldi jarraitua eta luzea izango zuten. Hala ere, bizi den kutsatze bolada berriak eta abian jartzen ari diren murrizketek zalantzan jar lezakete ibilbide hori.


ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA

3. HIRUHILABETEA

%13,3



Iturria: Eustat

LAN MERKATUA


Langabezia tasa %10,0ra jaitsi zen 2020ko hirugarren hiruhilekoan.

LANGABEZIA TASA

GUZTIRA

HIRUGARREN HIRUHILEKOA

%10,0




Langabezia tasa %10,0an kokatu zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, Eustatek ezagutarazi duen zenbatespenaren arabera. Hori dela eta, zortzi hamarrenetan jaitsi da bigarren hiruhilekoko tasaren aldean, pandemiaren lehen olatuak indar osoz jo baitzuen hiruhileko horretan. Langabezia tasak behera egiteko arrazoiak hiruhilekoko enplegu sorrera eta pertsona aktiboen zati batek lan merkatua utzi izana dira.

Hain zuzen ere, aurtengo bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, 3.100 pertsona landun gehiago zeuden eta, aitzitik, 5.600 aktibo gutxiago. Beraz, langabeen kopurua 8.600 lagunetan jaitsi zen. Generoaren arabera, emakumeen langabezia tasa bi hamarren jaitsi zen, %10,4ra arte, eta gizonena, berriz, %9,6an kokatu zen. Hiruhilekoan sortu zen enpleguak gizonei bakarrik egin zien mesedea.

LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK




LANGABEZIA TASA GIZONAK




Adin taldeen araberrako azterketak adierazten du gazteen langabezia tasak gora egi-
ten jarraitzen duela eta orain %28,6ra iritsi
dela, beste adin taldeen tasak baino askoz
gorago. Izan ere, erdiko tarteak (25 eta 44
urte artekoak) %11,3ra hobetu du bere ta-
sa, eta 45 urte eta gehiagoko taldeak lan-
gabezia tasa jaisteko joerari eutsi dio, eta
%7,0ra iritsi da, azken urteetako baliorik
txikiena baita.

Aldeak handiak dira langabeen nazionalita-
teari erreparatzen zaionean. Izan ere, es-
painiarren %8,2ren aldean, atzerritarren
langabezia tasa %27,9 da.


LANGABEZIA TASA. 16 ETA 24 URTE BITARTEKOA




LANGABEZIA TASA. 25 ETA 44 URTE BITARTEKOA




LANGABEZIA TASA. 45 URTE ETA GEHIAGO



LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK



LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK




Iturria: Eustat. (BJA)

INFLAZIOA

Kontsumoko prezioek tasa negatibotan jarraitzen dute

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Prezioek %0,2 egin zuten behera aurtengo irailean, 2019ko hilabete berarekin alderatuta. Beraz, jaitsiera erritmoa bi hamarrenetan leundu zen abuztuko tasaren aldean. Erregistro hori kontuan hartuta, urte arteko KPlak bi hilabetez jarraian izan ditu beherakada txikiagoak, baina sei hilabete eman ditujadanik tasa negatiboetan, hain zuzen ere apiriletik, hau da, koronabirusaren pandemiak eztanda egin zuenetik.

KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko iraila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,2	-0,2
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	0,5	0,4
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,4	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,2	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,4	0,2
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-3,0	-0,6
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	4,3	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-8,0	-0,9

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Aurreko hilabeteko buletinean aurreratu zenez, gaur egun KPIa prezioen aurrez aurreko bilketa-ekin egiten ari da, baina bide telematikoen bidezko bilketa ere mantentzen da, segurtasun arrazoiengatik, aurrez aurreko bilketa egitea ezinezkoa den kasuetan. Datu bilketa horretan, etxebizitza taldea nabarmendu zen guztien artean (-%0,9ra igo da aurreko -%2,4tik), talde hori izan zelako inflazio orokorraren beherakada moteltzen gehien lagundu zuena, argiaren ordainagiriaren igoeraren ondorioz. Era berean, aisia eta kultura taldeak ere ekarpen positiboa izan zuen,

-%2,8tik -%2,0ra igaro baitzen; izan ere, pakete turistikoak gutxiago merkatu ziren hilabete honetan joan den hilean baino, nahiz eta beherantz jarraitzen duten, udan erregistratutako jarduera ohikoa baino txikiagoa izan baita. Bi talde horiei elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak biltzen dituen taldea gehitu behar zaie. Hain zuzen ere, talde horrek nabarmen igo zituen bere prezioak, lekaleen eta barazkien salneurrien portaerak eraginda. Aitzitik, osasun krisiak eragindako garraiorako erregaien merkatzeak talde horren beherakada eragin zuen.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko iraila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,2	-0,4	-0,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,7	2,4	1,4
Edari alkoholodunak eta tabakoa	0,5	0,5	3,4
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	-1,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-0,9	-1,4	-1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,2	0,4	0,2
Osasuna	0,4	0,4	0,3
Garraioa	-4,7	-5,0	-3,2
Komunikazioak	-1,3	-1,4	-2,2
Aisia eta kultura	-2,0	-1,1	0,0
Hezkuntza	1,0	1,2	1,1
Jatetxeak eta hotelak	0,9	0,3	0,2
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,7	1,5	1,3

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Enpresen konfiantzak gora egin zuen laugarren hiruhilekoari begira


INEk argitaratutako estatistikaren arabera, EAEko enpresek egoera ekonomikoarekiko konfiantza zertxobait hobetu dute. Hain zuzen ere, institutu horrek egiten duen indizea laugarren hiruhilekoan 101,9an kokatu zen, hots, aurreko bi hiruhilekoetan erregistratutako datuen gainetik. Hala eta guztiz ere, oso urrun dago aurreko urteetan erregistratutako balioetatik, eta baita 2020. urtearen hasieran izandako mailetatik ere,

garai horietan 130 eta 140 puntu arteko tartean egon zelako.


Amaitu berri den hiruhilekoarekiko iritzi gehienak ezkorak dira, eta saldoa -45,7 da, aurreko balioa baino hamabi puntu gorago. Bestalde, hasi berri den hiruhilekoari dagozkion igurikimenek -41,0 puntuko saldoa ematen dute, eta kasu honetan, hirugarren hiruhilekoari dagokiona baino zortzi puntu hobe da.

ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZEA HARMONIZATUA. EUSKADI


2020KO LAUGARREN
HIRUHILEKOA
102



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




EAEko enpresek estatistika horretan duten posizioa eta Espainiako gainerako enpresek dutena ez dira oso desberdinak. Hala, Estatuko indizea hamar puntu igo da eta 105,5ean kokatu da, urtea hasi zeneko baliotik (131) oso urrun. Amaitu berri den hiruhilekoari buruzko iritziak nabarmen hobetu ziren aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, saldoa -62,8 izatetik -38,8 izatera igaro baitzen. Hala ere, hasi berri den hiruhilekoarekiko igurikimenak ez dira hain onak, eta hobekuntza lau puntura mugatzen da, hau da, -47,2tik -41,3ra. Koronabirusaren bigarren olatuaren larritasunak susperraldi azkarraren itxaropenak geldiarazi ditzake.


ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZEA ESPAINIA



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA. ESPAINIA



HASI DEN HIRUHILAKOAZ DUTEN IRITZIA. ESPAINIA



Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko datuen arteko alde hori gertatzen da amaitu berri den hiruhilekoari buruzko iritzietan EAEko enpresek ezkontasun handiagoa erakusten dutelako. Zehazki, puntu horretan, EAEko erantzunen %55,0 ezkorrak dira eta %9,3 soilik da baikorra, gainerako %35,7ak egoera normala dela adierazten duen bitartean. Espainiako kasuan, ezkorrak %48,8 dira eta baikorrak, berriz, %10,0. Sektore ekonomiko guztiak urtea hasi zuten maietatik urrun badaude ere, nabarmentzekoa da

eraikuntzak estatuan duela posizio onena, bere indizea 120,0 baita, aurreko aldiekin alderatuta hobekuntza nabarmena lortuz eta ekonomia osoaren 105,5aren oso gainetik. Merkataritza ere egoera on batean dago (111,8), baina beste zerbitzu jarduera batzuk batez besteko balioetatik urrun daude. Alde batetik, garraioa eta ostalaritza atzeratuta daude (94,5), eta gainerako zerbitzuak (102,8) batez bestekoaren azpitik daude. Industria da gehien kaltetutako beste sektoreetako bat (102,8).


Iturria: INE.

Ekonomia nagusiak hasi dira pandemiaren kalteak gainditzen

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA
3. HIRUHILABETEA
%4,9




Txinak pandemia epe laburrean kontrolatzea lortu zuen eta oso neurri murriztailerik ezarri gabe. Une hauetan, ekonomia jarduera suspertu dela baieztatu du. Zehazkiago adierazita, Txinako barne produktu gordina (BPG) %4,9 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan eta aurreko hiruhilekoan hasitako hobekuntza finkatu du. Industriaren ekoizpena eta aktibo finkoetako inbertsioa hazi egin ziren, pandemiak iraun bitartean geroratutako gastuak gauzatzearen ondorioz. Aldi berean, esportazioak osasun krisiarekin lotutako eta hortik eratorritako produktuen (osasun babeseko ekipamenduak, ondasun elektronikoak...) eskariak bultzatuta gora egin zuen.

Ameriketako Estatu Batuek ere hobekuntza nabarmena lortu zuten, baina tasa negatiboetan jarraitu zuten. Kontsumo pribatuak galdutako eremuaren zati bat berreskuratu zuen, eta ondasunen kontsumoari dagokionez ere (iraunkorrak zein iragankorrak) igoera positiboak eskuratzera iritsi zen. Inbertsioak ez zuen hain behera egin, esportazioek eta inportazioek bezala, kanpoko saldoak jarduerari bi hamarren emateko aukera izan baitzuten. Horri guztiari esker, BPGaren jaitsiera %2,9ra mugatu zen, aurreko erregistroa 6,1 puntutan hobetuz. Hiruhileko arteko tasetan, jarduera ekonomikoa %7,4ra handitu zen.

AE BETAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa

AE BETAKO BPG-A
3. HIRUHILABETEA
-%2,9



EUROPAR BATASUNA 27EN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Herrialdeen artean aldeak dauden arren, Europako ekonomiek antzeko bideari ekin diote aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Horiek guztiek urte arteko aldakuntza tasa negatiboak, bigarren hiruhilekokoak baino intentsitate txikiagokoak, eta hiruhileko arteko hazkunde nabarmenak izan zituzten. Zehatzago esanda, Europar Batasunak %3,9 egin zuen behera urte arteko tasetan eta, aldiz, %12,1 hazi zen hiruhileko arteko tasetan. Informazioa duten Europako ekonomia nagusien artean, Italiak %4,7ra murriztu zuen urte arteko

EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




uzkurtzea, Frantziak %4,3ra eta Alemaniak, azkenik, %4,2ra. Hiruhilekoen arteko tasetan, BPGaren igoerak %16,1, %18,2 eta %8,2 izan ziren, hurrenez hurren. Lan merkatuari dagokionez, pandemiaren ondorioak langabezia tasetan islatzen hasi ziren, eta tasa horiek gora egin zuten. Martxoko minimoen ostean (27 Europar Batasuneko langabezia tasa %6,5 izan zen), irailean %7,5era igo zen. Horrek esan nahi du gaur egun 2.200.000tik gora langabe gehiago daudela duela sei hilabete erregistratu zirenak baino.

INEren lehen zenbatespenaren arabera, Espainiako ekonomia %8,7 jaitsi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, beherakada handia baita, baina hobekuntza handia izan du aurreko aldiaren erregistratutako %21,5eko jaitsierarekin alderatuta. BPGaren agregatu guztiek, kontsumo publikoak izan ezik, tasa negatibotan jarraitu zuten, nahiz eta haien uzkuradura maila apalagoa izan zen.

Hiruhileko arteko tasetan, hobekuntza hori askoz nabarmenagoa izan zen. Zehazki, Espainiako jardura ekonomikoak %16,7ko gorakada izan zuen, INEk egiten duen eta 1970ean hasten den serie historikoan hiruhileko batean izan duen aurrerapen handiena baita. Hiruhileko datuen arabera, familien kontsumoak %20,7ko gehikuntza historikoa jaso zuen, eta bigarren hiruhilekoan, berriz, beherakada historikoa izan zuen (-%20,4). Inbertsiok eta esportazioek antzeko bilakaera izan zuten, eta udako hilabeteetan igoera apartak izan zituzten. Lan merkatuari dagokionez, enpleguak, lan egindako orduen arabera neurtuta, -%6,2ko urte arteko aldaketa tasa izan zuen.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: NDF, BEA, Eurostat eta INE.

Pandemia hedatzen ari da eta ekonomia susperraldia geroratzen

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

Urriko txostenean, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, 2020ko atzeraldia sakona izango da, baina ez ekainean aurreikusitakoa bezain larria. Goranzko zuzenketa hiru ziotan oinarritu da: ekonomia aurreratu nagusietan bigarren hiruhilekoko BPGaren datuak ez ziren izan hasieran espero zirenak bezain negatiboak, Txinan hazkundeari berrekin diote eta urteko hirugarren hiruhilekoan jarduera ekonomikoa bizkortu izanaren zantzuak daude.


2021erako, ordea, hazkunde tasak, oro har, beherantz berrikusi dira. Ekonomiaren susperraldia luzea, desberdina eta zalantzakoa izango dela espero da. Gainera, pandemia zabaltzen den bitartean, ez da hazkunde ziurrik izango.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Munduko ekonomia	2,8	-4,4	5,2	0,8	-0,2
Ekonomia aurreratuak	1,7	-5,8	3,9	2,3	-0,9
AEB	2,2	-4,3	3,1	3,7	-1,4
Eurogunea	1,3	-8,3	5,2	1,9	-0,8
Alemania	0,6	-6,0	4,2	1,8	-1,2
Frantzia	1,5	-9,8	6,0	2,7	-1,3
Italia	0,3	-10,6	5,2	2,2	-1,1
Espainia	2,0	-12,8	7,2	0,0	0,9
Erresuma Batua	1,5	-9,8	5,9	0,4	-0,4
Japonia	0,7	-5,3	2,3	0,5	-0,1
Garatzen ari diren herrialdeak	3,7	-3,3	6,0	-0,2	0,2
Txina	6,1	1,9	8,2	0,9	0,0
India	4,2	-10,3	8,8	-5,8	2,8
Errusia	1,3	-4,1	2,8	2,5	-1,3
Brasil	1,1	-5,8	2,8	3,3	-0,8

EKONOMIA AURRERATUEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

AEB-ETAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021


NDFren oinarritzko eszenategiaren arabera, 2021ean urruntze sozialeko neurriek jarraitu egingo dute, eta txertoaren estaldura handitu eta tratamenduak hobetu ahala gutxituz joango dira. Halaber, 2022. urtearen amaierarako birusaren transmisioa maila minimoetara jaitsiko da mundu osoan.

Nolanahi ere, pandemiari lotutako faktoreak aurreikustea zaila da, eta egoera makroekonomikoaren inguruko ziurgabetasuna oso handia da. Zalantzazko elementu ugari nagusitzen dira osasunaren testuinguruan, baina baita eskariaren ahuleziak, finantza merkatuek eta eskaintzaren narriadurak eragindako ondorioetan ere.

Nazioarteko Diru Funtsak epe laburreko eskaerak egiten ditu produktibitatea, mozkinen bidezko banaketa eta zor subiranoaren iraunkortasuna handitzeko.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

Iturria: NDF.



HILABETEKO LABURPENA

Urriak zalantzak piztu ditu laugarren hiruhilekoaz

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) udazkeneko aurreikuspenak argitaratu ditu, eta bertan islatzen duen egoera ez da ekainekoa bezain negatiboa. Oro har, **gorantz berrikusten du urte honetarako espero den munduko hazkundera, -%5,2tik -%4,4ra**. Aitzitik, 2021erako aurreikuspena bi hamarren jaitsi du. Aldaketa horien onura gehien jaso duten herrialdeak AEBak (3,7 puntuko goranzko berrikuspena izan du) eta Mexiko (3,3 puntuko hobekuntza) dira. Aitzitik, Indiarako aurreikuspenak 5,8 puntu murriztu ditu. Euroaren eremurako zuzenketa ere garrantzitsua da (1,9 puntu gehiago haziko da).

Hilabete honetan ezagutu da herrialde garatueta hirugarren hiruhilekoko BPGaren hazkunderaren lehen zenbatespena. Informazio hori garrantzitsua da ekonomiaren suspertze prozesuari pultsua hartzeko. Oro har, hiruhilekoen arteko aldakuntza tasak bereziki altuak izan dira, baina **urte arteko tasak oso negatiboak dira oraindik, nahiz eta bigarren hiruhilekokoak bezain negatiboak ez izan**. Adibide batzuk jartzearen, AEBetako hazkunde tasa -%9,0tik -% 2,9ra igaro da, Alemaniak zazpi puntu egin du gora, -%11,2tik -%4,2ra, eta Frantziak, berriz, -%18,9tik -%4,3ra. Tasen antzekotasuna hautsi egiten da Espainiaren kasuan, zifra negatibago batetik abiatzen baitzen (-%21,5) eta -%8,7an geratzen baita.

Kutsatzeen kopuruak Europako herrialdeetan gora egin izanak eta beren gobernuak hartzen ari diren neurri murriztaileek enpresen igurikimenak geldiarazi dituzte, urriko PMI indizeek jasotako erantzunen arabera. Zehazkiago adierazita, indize konposatuaren maila irailean 50,4koa izatetik urrian 49,4koa izatera igaro da, eta, horren ondorioz, laugarren hiruhilekoan berriro atzeraldian sartuko delako ideiak indarra hartu du. Aurreko hilabeteetan iragarri zen bezala, alde handiak daude sektoreen eta herrialdeen artean. Horrela, manufakturen indizea 57,8ra igo da, hedapen handia adierazten duena. Zerbitzuena, berriz, 46,2ra jaitsi da eta hazkunde eremutik urrundu da. Herrialdeka, Alemaniak posizio sendoa du (54,5) eta Frantzia ahuldu egin da (47,3).

EAEko ekonomiari dagokionez, **hirugarren hiruhilekoko kontu ekonomikoaren aurrerapena ezagutu da, eta aurreikusitakoa baino hobea izan da**. Zehatzago esanda, BPGaren urte arteko tasa -% 7,7 izan zen, eta azken koadro makroekonomikoan -%11,9 aurreikusi zen. Enpleguak ere uste baino portaera hobea izan du, eta lanaldi osoko lanpostu baliokideek %6,5 egin zuten behera, aurreikuspenen arabera %9,2 jaitsiko ziren bitartean.

Aurrekoari lotuta, BJA inkestak lan merkatuaren datu negatiboak argitaratu ditu, baina bizi garen egoera kontuan hartuta espero zitekeen mailara iritsi gabe. Adibidez, landunen beherakada, urte arteko tasan neurtuta, %4,4 izan zen, 40.000 pertsona landun baino gutxiago galdu baitziren, aipatutako kontu ekonomikoaren %6,5aren aldean. Beste aldetik, lan merkatutik jende asko irten da, 34.000 pertsona aktibo gutxiago baitaude orain. Beraz, langabeziak 4.700 lagunetan bakarrik egin du gora azken urtean. **Horren guztiaren ondorioz, langabezia tasa %10,0 izan da**, 2019ko hirugarren hiruhilekoko %9,4aren gainetik dagoe-na, baina 2020ko bigarren hiruhilekoko %10,8aren azpitik kokatu dena. INEren BAI inkestak antzeko langabezia tasa eman du (%10,3).

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
BPG	3,1	2,2	2,1	2,2	-3,2	-19,5	-7,7
Barneko azken kontsumoa	2,6	1,9	1,8	1,6	-3,0	-15,4	—
Familien kontsumoa	3,0	1,8	1,6	1,5	-4,8	-20,3	—
Administrazioaren kontsumoa	1,2	2,2	2,4	2,3	4,1	3,0	—
Kapital eraketa gordina	4,9	3,3	2,7	2,7	-3,6	-23,0	—
Barne eskaria	3,2	2,2	2,0	1,9	-3,1	-17,2	—
Esportazioak	2,7	0,4	-0,6	1,4	-7,5	-30,1	—
Inportazioak	2,8	0,4	-0,6	1,0	-7,2	-26,4	—
Lehen arloa	1,7	3,2	2,8	5,9	3,5	-6,1	—
Industria eta energia	2,0	1,3	1,2	2,2	-3,6	-26,7	—
Eraikuntza	4,0	3,4	3,2	2,1	-2,7	-17,9	—
Zerbitzuak	3,1	2,5	2,4	2,1	-2,8	-17,5	—
Balio erantsi gordina	2,9	2,3	2,1	2,2	-3,0	-19,6	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,2	1,8	2,3	-5,1	-18,4	—
Enplegua	2,3	1,5	1,5	1,2	-2,8	-17,2	-6,5

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2020		2020	2021				2021
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	-11,9	-5,8	-10,1	0,6	21,6	11,4	4,3	8,9
Barneko azken kontsumoa	-8,9	-4,3	-7,9	0,6	17,5	8,8	3,8	7,4
Familien kontsumoa	-12,0	-6,1	-10,8	0,3	22,6	10,8	4,2	8,9
Administrazioaren kontsumoa	2,9	2,5	3,1	1,0	1,6	1,5	1,7	1,5
Kapital eraketa gordina	-14,5	-6,0	-11,7	0,0	24,9	12,9	2,8	9,3
Barne eskariaren ekarpena	-10,9	-5,0	-9,3	0,5	20,3	10,4	3,8	8,2
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,0	-0,8	-0,8	0,1	1,3	1,0	0,5	0,7
Lehen arloa	-7,7	-8,5	-4,8	1,6	11,8	8,8	10,3	8,0
Industria	-16,9	-8,7	-14,0	-2,1	28,9	14,9	4,9	10,5
Eraikuntza	-10,1	-7,5	-9,6	0,5	19,3	8,1	6,3	8,2
Zerbitzuak	-10,4	-5,1	-9,0	1,0	19,9	10,5	4,3	8,5
Balio erantsi gordina	-11,9	-6,2	-10,2	0,3	21,8	11,4	4,6	8,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,5	-2,4	-9,4	3,3	20,2	11,8	1,7	8,8
Lanaldi osoko lanpostuak	-9,2	-6,3	-8,9	-1,1	18,2	8,6	5,9	7,9
Landunak (BJA)	-5,5	-4,0	-3,2	-3,0	2,4	3,8	3,6	1,7

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
Hispalink (BEGren aldak.)	-10,6	5,7	Laboral Kutxa	-8,9	7,0
BBVA	-10,5	5,8	Afi	-7,5	—
CEPREDE	-9,6	9,3			

ESTADÍSTICA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,4	2,0	1,8	1,7	-4,2	-21,5	-8,7
Kontsumo pribatua	1,8	0,9	1,1	1,0	-6,2	-25,2	-10,4
Kontsumo publikoa	2,6	2,3	2,2	2,6	3,7	3,1	3,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,1	2,7	2,8	0,9	-5,1	-25,8	-11,9
- Aktibo finko materialak	7,6	2,7	2,6	0,1	-6,9	-29,7	-13,4
- Eraikuntzan	9,3	1,6	0,9	-2,2	-7,0	-27,7	-15,2
- Ekipamendu ondasunetan	5,4	4,4	5,4	3,6	-7,3	-34,2	-11,4
- Jabetza intelektualaren produktuak	-0,7	2,6	3,7	5,0	4,5	-5,8	-4,6
Nazio eskaria (ekarpena)	3,0	1,4	1,5	1,0	-3,9	-18,8	-7,8
Esportazioak	2,3	2,3	2,7	2,1	-5,6	-38,1	-17,0
Inportazioak	4,2	0,7	2,0	0,3	-5,4	-33,5	-15,7

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

2020		2021		2020		2021	
AFI	-12,2	7,7	IEE	-12,0	6,0		
Axesor	-11,8	7,0	Intermoney	-12,4	7,2		
BBVA	-11,5	7,0	Mapfre Economics	-12,1	6,8		
Bankia	-13,0	6,0	Repsol	-13,0	5,7		
CaixaBank	-14,0	10,0	Santander	-10,1	7,5		
Cámara de Comercio España	-13,0	8,6	Ygroup Companies	-13,0	6,0		
Cemex	-12,0	6,0	Universidad Loyola Andalucía	-11,5	7,1		
CEEM-URJC	-11,2	8,5	Consenso (media)	-12,0	7,3		
CEPREDE-UAM	-10,2	10,1	Gobierno (2020-10)	-11,2	7,2		
CEOE	-11,5	7,0	Banco España (2020-09)	-10,5/-12,6	7,3/4,1		
Equipo Económico (Ee)	-12,0	6,8	Comisión Europea (2020-07)	-10,9	7,1		
FUNCAS	-13,0	7,9	FMI (2020-10)	-12,8	7,2		
ICAE-UCM	-11,5	7,0	Consensus Forecast (2020-10)	-12,1	6,7		

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, Bankia, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía, Ygroup Companies.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
AEB	3,0	2,2	2,1	2,3	0,3	-9,1	-2,9
Txina	6,6	—	6,0	6,0	-6,8	3,2	4,9
Japonia	0,3	0,7	1,7	-0,7	-1,9	-10,1	—
Kanada	2,0	1,7	1,6	1,5	-0,9	-13,0	—
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,6	1,2	-2,7	-13,9	-3,9
Eurogunea	1,8	1,3	1,4	1,0	-3,3	-14,8	-4,3
Alemania	1,3	0,6	0,8	0,4	-2,1	-11,2	-4,2
Frantzia	1,8	1,5	1,6	0,7	-5,8	-18,9	-4,3
Erresuma Batua	1,3	1,5	1,3	1,1	-1,7	-21,7	—
Italia	0,8	0,3	0,5	0,1	-5,6	-17,9	-4,7
Herbehereak	2,4	1,7	1,6	1,7	-0,4	-9,2	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020KO AZAROA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	-4,0	3,7	1,2	2,0	8,4	6,8
Japonia	-5,7	2,5	0,0	0,0	2,9	3,1
Kanada	-5,8	4,9	0,7	1,7	9,5	7,8
Europar Batasuna	-7,4	5,0	0,6	1,1	—	—
Eurogunea	-7,5	5,3	0,3	0,9	8,4	9,3
Alemania	-5,5	4,4	0,5	1,5	5,9	6,0
Frantzia	-9,5	6,7	0,5	0,9	9,0	10,1
Erresuma Batua	-10,1	5,7	0,9	1,5	5,3	7,3
Italia	-9,9	5,3	-0,1	0,4	9,8	11,5
Espainia	-12,1	6,7	-0,3	0,7	—	—
Herbehereak	-4,9	3,3	1,3	1,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.